

EUSKAL-FESTAK VILAFRANCA-N

1904

(EUSKAL-FÉSTEN XXIII.^{GARREN} URTEA)

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarreak gure euskera eder, itz-kribu eta musika jatorriztik ditugunak alegiñ guztian gorde eta zabal-tzeko egiñ-pideari beti leyal, argitaratzen du, Gipuzkoako Diputazio chit goituaren erabakitzaari jarraiturik eta bere baimenarekiñ, aurten Villafranka-n egiñ bear diran Euskal-fésten azaldea, prestaturik ontara-ko ondoren agertzen diran indar-neurtz eta jostagudak.

AZALDEA

Izkribatzalleen indar-neurtrea

Euskal-izkuntza jakindeak zabaltzen sayatzen diran izkribatzalleai lanbide onragarri onetan aurrera ere jarraitzeko limurkaritzat, emango zaizkate ondorengo sari oek:

I.^{ko} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, euskarazko itz-neurtu eta gipuzkoar izkeran egintako lanik onenari, A. Urdaneta gaya duela.

2.^{garren} EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, itzlarri eta gipuzkoar izkeran, Villafranka-ri donkitutako lanik onenari.

3.^{garren} BERROGEI TA AMAR PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, edo-zeiñ gai, neurri eta euskal-izkera motan jarritako itz-neurtuedo berso moldaera ederrenaren egilleari.

4.^{garren} EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, jostiruditar mol-daerik onena itzlarri eta Gipuzkoako euskal-izkeran egiten duenari, gaya izan litekela ala negargarri nola pozgarri motakoa. Artuak izango dira gai onetan, ala oraingo egintza berriyen gañean moldatutako lanak, nola kondairak erakusten dizkigun antziñatarrai daguzkiyenak.

5.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, itzlarri eta gipuzkoar izkera motan, Goierriko baserri edo nekazariyen bizi modua zer nolakoa dan obeto agertzen duenari.

6.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, Villafranka-ko feri sonatuba, obeto agerzen duen moldaerari, itz-neurtu eta gipuzkoar izkeran.

7.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, itz neurtu eta gipuzkoar izkeran, kontu bat, edo kontu chiki sall bat onena agerzen duenari. Estimatuena izango dira, oraindik izkribatu gabeko kondaira zarren gañean jarriak.

8.^{garren} BERROGEI TA AMAR PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, 15-tik 30 urtera bitarteko neskach edo mutill euskal-irakurlerik onenari, Gipuzkoako izkeran eta Batzar-epalleak siñalatuko dion beste batean, ala itz-larri nola neurtuetan.

9.^{garren} DIBUJATZEKO KAJACHO EDO GIS ONTAKO SARI BATZUEK, ordu laurden batean euskaraz ongiyena irakurri eta izkribatzen duten neska eta mutillentzat; eta gaztelanitik euskarara eta ontatik artara biurtzarrik onenak egiten dituztenentzat.

Musikalarien indar-neurtzea

I.^{ko} BERREUN TA BERROGEITA AMAR PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, oraindik izkribitu gabeko euskal-musika sallik onena aurkezten duenaren zan.

2.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, danboliñ-talde osorako egokiena antolatua aurkezten dan zortzikorik jatorrena danari bere otseztietan, ala nola erraztasun eta sortze garbiyan. Talde osoak izan bear ditu bi chistu-danboliñ, chistu-lodi bat eta atabala.

3.^{garren} EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, zotziko ori ongiyena jotzen duen danboliñ-talde osoari.

4.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAI ETA BITEZARRA, kantari taldeetako, gizonen lau bozera, On Damaso Zabalza-ren zortziko «Ari-tari» izendatua obeto jartzen duenarentzat.

5.^{garren} EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, kantari taldechoe-tako mutillen iru bozera eta moldaera beraren jatorrizko itzakiñ, eus-kal-erriko kanta zar bat egokiena antolatzen duenari.

6.^{garren} Sari bat, BERE BALIOA JUEZEN ERABAKIRA UZTEN DALA, au-rrean esaten dan moldaera obeto kantatzen duen mutil-mordoška edo taldeari, kantariyak bederatzi guchienaz dirala.

Bersolarien jolasbidea

Egingo da Euskal-erriko bersolarien bilkida eta jostaguda bat, ema-nik Larogei pezeta, erdira, bi onenai, au da berrogei pezeta, bakoit-zari.

Oarkerak

I.^{ko} Indar-neurtze oetarako aukeratzen diran lan guziak bialduak izan bear dute korrioaren bidez paper bilgo ziertotu edo zertifikatue-tan zuzende onekiñ: SR. SECRETARIO DEL CONSISTORIO DE JUEGOS FLO-RALES EUSKAROS.—SAN SEBASTIÁN.

2.^{garren} Lan guziak bialdu bear dira indar-neurze oetarako, esan, dan eran datorren Abuztuaren lenbiziko egunerako.

3.^{garren} Lan guztietan egilleak agertu bearko du bere lanaren oñean berak sortua dan lana, eta, ala ezpalitz, siñalayuko du zer moldaeratik antolatu duen.

4.^{garren} Lan bakoitzak ekarriko du barrenen paper-bilgo ichi bat, ipiñirik bertan izkibatzailearen izen eta bi izengañak edo lonbreak, non bizi dan agertzen duela. Ez dira ontzat artuko izkira edo letra bakar eta izen-ordekoak.

5.^{garren} Musikalarien lanak esamiñatuko dituen Batzar epallea egingo dute iru maisu euskaldun jakintsu ezagutuak, eta bere erabaki daren kontra alchatzeko ez da eskubiderik izango, ala nola izango ez dan ere izkribatzaileen artean.

6.^{garren} Baldiñ Euskal itz-jostaldietako edo musikalarien Batzar-epa-llaren iritziyan, saririk merezi ezpalute aurkezten diran lanak, zango dute ayek eskubidea bakoitzak bere indar-neurtzeakutsaz ema-

teko, ala nola ondo deritzaten aldeera eta aipamen onragarriyak sifialatzeko.

7.^{garren} Eziñ opako dute azalde ontan jarri diran sariyetara, iru bider sari bat bera irabazi dutenak, baña aurkeztu litezke indar-neurtzaz kanpora, orla datozela agertzen dutela, eta emango zaye *Bitezar onragarri bat*, mereziya baderitzate Euskal-itx Jostaldietako edo musikalarien Batzar-epalleak.

8.^{garren} Sariyak irabazteko, ez da kontuan izango lan edo moldaeren luzetasunik geyena.

9.^{garren} Indar-neurtze ontan aurkezteko prestatu nai duten dandoliñ-taldeai, ala nola mutillen kantari-taldechoai, emango zaizkate saetuak izaten diran moldaeren paper-irudiak aurrez bear dan denborearekiñ, Batzar-epalleak argitu dezan batere dudarik izango balute.

10.^{garren} Izkirazko moldaera guziak esamiñatuko ditu Euskal-itx Jostaldien Batzarreak eta sarituak izaten diranetatik batzuek moldizkiratuko dira osto banaketan, beren egilleai batzuek emanik.

11.^{garren} Sarituak izaten diran izkiraiko moldaera guziak ipiñiko dira Batzarrearen urteoroko Oroimengarrian, jostirudirakoaz kanpora, batzuek emanik beren egilleai, Diputazio chit goitu eta beste batzarreari bezela.

12.^{garren} Batzarrearen goarpelariak irakurriko du moldaeren erabakida sariemaldiko otsandigoan.

13.^{garren} Irakurriko dira sarituak izaten diran izkribuetatik ortarako luziegi ez diranak.

14.^{garren} Emango zaizkate sari, bitezar eta osto moldizkiratuak, oek jasotzera aurkezten diran egilleai.

Donostian, 1904-ko Garagarrillaren I-ean.

Batzarrearen izenean:

LAFFITE-KO ALFREDO,
Dianagusia.

ANTONIO ARZÁC,
Goarpelaria.

(Diputazio chit goituaren Bilgumak baimendua Garagarrillaren 6-an egintako billaldiyan).

